Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko otsailaren 25a, osteguna — 37 — Jueves, a 25 de febrero de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ENIRIO ARALARKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Enirio-Aralarko Mankomunitatearen Larre eta Txabolen Ordenantzak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 92, 2017ko maiatzaren 16koa) ezartzen duenaren arabera, Enirio-Aralarko larre-sailetan libre geratu diren txabola bakoitzaren gozamendua, jabari publikoko ondasun baten erabilpen pribatibo izaera duen kontzesio moduan esleitzen da (34. artikulua).

Enirio-Aralarko Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordeak, 2020ko abenduaren 22an onartu zuen txabolen erabilpen pribatiboaren kontzesiorako klausula administratibo partikularren pleguaren arabera emango dira kontzesio horiek lehiaketa irekian.

Datorren larrealdiari begira, Enirio-Aralarko larre-sailetan libre geratu diren txabolak 8 dira, eta otsailaren 5eko data duen Mankomunitateko Lehendakaritzaren 1. ebazpenaren bitartez aipatutako txabolen esleipenerako lizitazio publikoa deitu da, presazko izaeraz.

Hori guztia dela eta, segidan aipatzen diren txabolen erabilera pribatiborako emakidaren lizitazio publikoari ekin zaio:

## MANCOMUNIDAD DE ENIRIO ARALAR

*Anuncio*

De acuerdo con la Ordenanza sobre Pastos y Chabolas de la Mancomunidad de Enirio-Aralar (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 92, de 16 de mayo de 2017), la Mancomunidad realiza el usufructo de cada chabola que queda libre en los pastos de Enirio-Aralar como concesión con carácter de uso privativo de un bien de propiedad pública (artículo 34).

La licitación pública mediante concurso abierto se regirá según el pliego de cláusulas administrativas para la concesión del uso privativo de las chabolas aprobado por la Junta Rectora de la Mancomunidad de Enirio-Aralar, en sesión celebrada el día 22 de diciembre de 2020.

De cara a la próxima temporada, son 8 las chabolas que han quedado libres en los terrenos de pastos de Enirio-Aralar. y por resolución n.º 1 de Presidencia de la Mancomunidad de fecha 5 de febrero de 2021 se ha convocado licitación pública para la adjudicación de las citadas chabolas, con carácter de urgencia.

En base a todo ello se anuncia la licitación pública para la concesión del uso privativo de las chabolas que se señalan a continuación:

| *Txabola*<br>*Chabola* | *Kanona*<br>*Canon* | *Fidantza*<br>*Fianza* | *Gehienezko artaldea*<br>*Rebaño máximo* |
|---|---|---|---|
| Ariñate 1 | 205,77 € | 300 € | 500 |
| Intzentsaro 1 | 205,77 € | 300 € | 500 |
| Pagabe 2 | 172,40 € | 300 € | 500 |
| Latosa 3 | 83,41 € | 300 € | 500 |
| Pardeluts 2 | 83,41 € | 300 € | 500 |
| Zotaleta 1 | 172,40 € | 300 € | 500 |
| Zotaleta 2 | 172,40 € | 300 € | 500 |
| Zotaleta 3 | 205,77 € | 300 € | 500 |

Kontzesioaren iraupena: 10 urte.

*Espedientearen erakusketa:* Ordiziako udaletxeko idazkaritzan, Kale Nagusia 24 – 3. solairuan, lanegunetan, goizeko 9:00etatik 13:00etara eta deialdia iragartzen denetik lizitazio egunera bitarte.

Mankomunitatea osatzen duten herrietako udaletxetan.

Mankomunitateko webgunean.

*Proposamenak aurkeztea:* Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Mankomunitatearen egoitza den Ordiziako Udaletxeko idazkaritzan edo Enirio-Aralarko Mankomunitatea osatzen duten gainerako 14 udalerrietako edozein udaletxetan (Abaltzisketa, Altzaga, Amezketa, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Ikaztegieta, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Orendain eta Zaldibia) aurkeztu beharko da proposamena, goizeko 9etatik 13ak arte.

Duración de la concesión: 10 años.

*Exposición del expediente:* Secretaría del Ayuntamiento de Ordizia, sita en Kale Nagusia n.º 24 – 3.ª planta, en días laborables, de 9:00 a 13:00 y desde la publicación de la convocatoria hasta la fecha de la licitación.

Ayuntamientos componentes de la Mancomunidad.

Página web de la Mancomunidad.

*Presentación de proposiciones:* Sede de la Mancomunidad, sita en la Secretaría del Ayuntamiento de Ordizia o en cualquiera de los ayuntamientos de los 14 municipios restantes que conforman la Mancomunidad de Enirio-Aralar (Abaltzisketa, Altzaga, Amezketa, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Ikaztegieta, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Orendain y Zaldibia) en horario de 9 a 13, en días laborables.

EK\CV GAO-I-2021-00988

Proposamenak postaz ere aurkeztu izan ahalko dira. Kasu hauetan posta-bulegoan jarritako data hartuko da baliokotzat.

Baldintza Administratiboen Pleguko eranskinetan jasota dauden ereduen arabera aurkeztuko dira proposamenak.

*Proposamenak aurkezteko epea:* Epea hogei egunekoa izango da, deialdi iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*Proposamenak irekitzea:* Proposamenak Ordiziako Udaletxeko Pleno Aretoan irekiko dira, hauek aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean, eguerdiko 12etan.

Ordizia, 2021eko otsailaren 5a.—Lehendakaria. (988)

Las proposiciones podrán presentarse también por correo. En estos casos se considerará válida la fecha fijada en la oficina de correos.

Las proposiciones se presentarán según los modelos recogidos en los anexos del Pliego de Cláusulas Administrativas.

*Plazo para la presentación de la proposiciones:* El plazo será de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Apertura de proposiciones:* Las propuestas se abrirán en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Ordizia a las 12 horas del primer día hábil siguiente a aquél en que termine el plazo de presentación de proposiciones.

Ordizia, a 5 de febrero de 2021.—El presidente. (988)

EK\CV GAO-I-2021-00988